Halaber, erakunde laguntzaileak hauetan jasotako xedapenak bete beharko ditu:

La entidad colaboradora habrá de observar, asimismo, las disposiciones recogidas en:

- 62/2002 Foru Dekretua, martxoaren 26koa, gizarte zerbitzuen foru erregistroa sortzen duena. Bereziki 5.3 artikulua bete behar da. Beraren b) atalak erregistro horretan izena emateko exijitzen du, Bizkaiko Foru Aldundiarekin hitzarmenak egin ahal izateko, salbu eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin berenberegiz adosten bada betekizun hori bete beharretik salbuestea.
- El Decreto Foral 62/2002, de 26 de marzo, por el que se crea el Registro Foral de Servicios Sociales, siendo en particular de obligada observancia el artículo 5.3 en cuyo apartado b) se exige la inscripción en dicho Registro para la suscripción de Convenios con la Diputación Foral de Bizkaia, salvo que expresamente se exceptuase de este requisito por acuerdo de esta Diputación Foral de Bizkaia.
- Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 6ko 64/2004 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea onartzen dituen; baita hura garatzeko Bizkaiko Foru Aldundiak onartutako araudia ere.
- El Decreto 64/2004 de 6 de abril, del Gobierno Vasco, por el que se acuerda la carta de derechos y obligaciones de las personas usuarias y profesionales de los servicios sociales de la Comunidad Autónoma del País Vasco y el régimen de sugerencias y quejas, así como en la normativa que, de cara al desarrollo de la misma, se apruebe por la Diputación Foral de Bizkaia.

Azkenik, hauek ere aplikatuko dira:

Por último, será de aplicación:

- 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapenari, Antolaketari, Araubideari eta Jardunbideari buruzkoa.
- La Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia.
- Otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua, Bizkaiko gardentasunari buruzkoa, zehazki, haren 2. eta 9. artikuluetan xedatutakoa.
- La Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de transparencia de Bizkaia, en particular, lo establecido en los artículos 2 y 9 de la misma.
- 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako dena.
- La Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua.
- Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datuak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko dena.
- La Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.





Hitzarmen honetan aurrez ikusten ez diren gai guztietan hauek aplikatu beharko dira: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legea, Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onartzen duen 2013ko abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, eta aplikatu beharreko gainerako xedapen guztiak.

Hitzarmena garatu eta burutu bitartean aldean artean sortzen diren eta hitzarmenean aurrez ikusitako Jarraipen Batzordean ezin ebatzi daitezkeen auziak administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioaren menpe jarriko dira, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzeko uztailaren 13ko 29/1998 Legean edo, bidezkoa bada, araudi zibilean xedatu denarekin bat.

#### **Hogeita Hirugarrena.- Datuen babesa.**

Zerbitzua betetzeari lotutako datu pertsonalei dagokienez, hitzarmen honetako 4. eta 5. ERANSKINETAN ezarritakoa beteko da.

Berariaz debekatuta dago hitzarmenaren xede den zentroari edo jardueri buruzko informazioa edo publizitatea emateko karteletan, material inprimatuetan, baliabide elektronikoetan edo ikus-entzunezkoetan pertsona erabiltzaileen argazkiak edo irudiak erabiltzea, salbu eta erabiltzaileak berariaz edo haien lege ordezkariak berariaz eta idatziz horretarako baimena eman badute.

Erakunde lankideak ezin izango du Programari buruzko informaziorik eman inon (kongresu, topaketa, formazio edo zabalkunde jardunaldietan) eta programari buruzko informazioa eskatzeko komunikabideren bat Asociación Educativa Berritzu elkartearekin harremanetan jarriz gero, elkarteak edozein elkarkidetzara eskaera Indarkeria Matxistatik Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuari jakinaraziko dio. Honek Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko prentsa aholkularitzari helaraziko dio eta aholkularitzak erabakiko du elkarkidetzara egokia

Para todo lo no previsto en el presente convenio será de aplicación la Ley 40/2015 de Régimen Jurídico del Sector Público, el Decreto Foral Normativo 5/2013, de 3 de diciembre, por el que aprueba el texto refundido de la Norma Foral 5/2006 General Presupuestaria, y su Reglamento, así como cualquier otra disposición que pudiera resultar de aplicación.

Las cuestiones litigiosas que surjan entre las partes durante el desarrollo y ejecución del convenio y que no puedan ser resueltas en la Comisión de Seguimiento prevista en el presente convenio, se someterán a la jurisdicción contencioso-administrativa, conforme a lo dispuesto en la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contenciosos-Administrativa, o por la normativa civil, en su caso.

#### **Vigésimo Tercera.- Protección de datos.**

En relación con los datos de carácter personal afectos al cumplimiento del servicio se estará a lo dispuesto en los ANEXOS 4 y 5 del presente convenio.

Queda expresamente prohibida la utilización, en carteles, materiales impresos, medios electrónicos o audiovisuales en los que se publicite o informe del centro objeto del convenio o de sus actividades, de fotos o imágenes de las personas usuarias salvo que las mismas o sus representantes legales lo hayan expresamente autorizado por escrito.

La Entidad colaboradora no podrá proporcionar ninguna información sobre el Programa en ningún foro (jornadas, congresos, actividades formativas o de difusión, ..) sin autorización, y si algún medio de comunicación se pusiera en contacto con la Asociación Educativa Berritzu colaboradora para solicitar información relativa al Programa, ésta estará obligada a trasladar todas las peticiones de colaboración que reciba al Servicio de Protección frente a la Violencia Machista y Apoyo a las Familias, para que éste se lo haga saber a la asesoría de prensa del Departamento de Empleo, Cohesión Social e





ASOCIACIÓN EDUCATIVA  
**BERRIZTU**  
HEZKUNTZA ELKARTEA



edo desegokia izan daitekeen. Horretarako baimena edo ezeztapena emango da.

Azaldutako guztiarekin ados daudela adierazteko, alderdiek hitzarmen hau formalizatu eta sinatzen dute.

Azken parte-hartzaileak sinatutako data hartuko da hitzarmen honen eraginkortasun-datatzat

ASOCIACIÓN EDUCATIVA BERRIZTU  
elkartearen aldetik / Por la ASOCIACIÓN  
EDUCATIVA BERRIZTU

D. KOLDOBIKA MIKEL URUÑUELA GARCÍA jn.

Igualdad que determinará la conveniencia o no de dicha colaboración, denegándola o autorizándola.

Y en prueba de conformidad, se formaliza y firma el presente convenio.

Se establece como fecha de eficacia del presente convenio, aquella en la que hubiera firmado la última persona interviniente en el mismo.,

Bizkaiko Foru Aldundiaren aldetik  
Por la Diputación Foral de Bizkaia

Dña. M<sup>a</sup> TERESA LAESPADA MARTÍNEZ and





ASOCIACIÓN EDUCATIVA  
**BERRIZTU**  
HEZKUNTZA ELKARTEA



## 1. ERANSKINA:

HITZARMENA LIKIDATZEKO  
DOKUMENTAZIO EKONOMIKOA

- 1.1. Proiektuari egotzitako gastuen eta sarreren egoera-orria
- 1.2. Pertsonal-gastuen zerrenda sailkatua
- 1.3. Kontzeptuen arabera sailkatutako gastuen zerrenda (gainerako gastuak)
- 1.4. Kontzeptuen arabera sailkatutako sarreren zerrenda.

## ANEXO 1:

DOCUMENTACIÓN ECONÓMICA PARA LA  
LIQUIDACIÓN DEL CONVENIO

- 1.1. Estado de gastos e ingresos imputados al proyecto
- 1.2. Relación clasificada de gastos de personal
- 1.3. Relación clasificada de gastos por conceptos (resto de gastos)
- 1.4. Relación clasificada de ingresos por conceptos





















## 2. ERANSKINA:

KONTU-AUDITOREAK JUSTIFIKAZIO-KONTUAREN BERRIKUSPEN ETA EGIAZTAPENARI BURUZ EMAN BEHARREKO TXOSTENAREN IRISMENA ETA EDUKIA SINATUTAKO HITZARMENAREN ARABERA.

### 1. Jardun-arauen xedea.

Eranskin honetan jasotzen diren arauen xedea da zehaztea kontu-auditoreek zer arau errespetatu behar dituzten erakundeak eta Bizkaiko Foru Aldundiak indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako eta haien seme-alabentzako eta ardurapean dituzten pertsonentzako egoitzazerbitzua eskaintzeko eta kudeatzeko sinatutako hitzarmenean aipatzen den justifikazio-kontuarekin batera aurkezten den txostena ematerakoan.

Dokumentu honetan, auditorearen jarduna arautu behar duten jarraibideak ezartzen dira; egin beharreko lanen nondik norakoak zehazten dira, eta berrikuspina amaitu ondoren emango duten txostenak jaso beharreko edukia zehazten da.

### 2. Auditorearen jarduna arautu behar duten printzipioak.

1- Dokumentu honetan jasotako arauak aplikatzeko, hauek dira kontu-auditoreak: Kontabilitate eta Kontu Auditoretzako Institutuaren menpeko Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean jarduneko auditore gisa inskribatuta daudenak.

2- Finantzaketa jasotzen duen erakundeak justifikazio-kontua prestatzeko betebeharra du, eta, horretarako, hitzarmenaren 1. eranskinean biltzen den gastuen eta sarreraren egitura erabili behar dute; bada, kontu hori eta auditorearen txostena Jarraipenerako Batzordeari aurkeztu behar zaizkio, lankidetzak hitzarmenean ezarritakoaren arabera.

Auditoreak berrikusi eta egiaztatu beharreko justifikazio-kontuaren egitura eta edukia 1. eranskinean jasotzen da.

## ANEXO 2:

ALCANCE Y CONTENIDO DEL INFORME DE REVISIÓN Y VERIFICACIÓN DE LA CUENTA JUSTIFICATIVA A EMITIR POR LA PERSONA AUDITORA DE CUENTAS EN VIRTUD DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN.

### 1. Objeto de las normas de actuación.

El objeto de las normas recogidas en este anexo es establecer las reglas que deberá contemplar la persona auditora de cuentas en la emisión del informe que acompañará a la cuenta justificativa a que se hace referencia en el convenio firmado por la Entidad con la Diputación Foral de Bizkaia para la prestación y gestión de un servicio residencial para mujeres víctimas de violencia machista y sus hijas e hijos y personas a cargo.

Las normas de actuación recogidas en el presente documento establecen las bases que han de regir la actuación de la persona auditora, concretan el alcance del trabajo a realizar y el contenido del informe a emitir una vez finalizada la revisión.

### 2. Principios que han de regir en la actuación de la persona auditora.

1- A los efectos de la aplicación de las normas recogidas en este documento, se considera persona auditora de cuentas aquella inscrita como ejerciente en el Registro Oficial de Auditores de Cuentas dependiente del Instituto de Contabilidad y Auditoría de Cuentas.

2- La Entidad receptora de financiación tiene la obligación de preparar la cuenta justificativa, conforme a la estructura de gastos e ingresos que se incorpora como Anexo 1 al convenio, y de presentarla junto con el informe de la persona auditora ante la Comisión de seguimiento, de acuerdo con lo dispuesto en el convenio.

La estructura y contenido de la cuenta justificativa, objeto de revisión y verificación por parte de la persona auditora, será la recogida en el Anexo 1.





3- Auditorearen erantzukizuna bere lana dokumentu honen edukiaren arabera egitera mugatzen da, bertan ezarritako prozedurak gauzatuz. Halaber, beste prozedura batzuk ere aplikatu ahal izango ditu, bere esperientziaren eta ezagutzaren arabera berrikuspenaren eta egiaztatzearen xedea betetzeko lagungarri bazaizkio.

Auditoreak txostena egin behar du, bere lanaren emaitza gisa, non zehaztuko duen zer egiaztapen egin duen. Halaber adierazi behar ditu onuradunak gastuak eta sarrerak egotzeko aplikatu beharreko araudia ez betetzea eragin lezaketen akats edo salbuespen guztiak, eta xehetasun eta zehaztasun nahikoarekin eman behar du horren inguruko informazio guztia, Jarraipenerako Batzordeak horri buruzko erabakia hartu ahal dezan.

4- Auditoreak dokumentu honetan ezarritakoa bete behar du, eta, horrez gainera, osagarri gisa, honako hauek ere bete behar ditu: independentzia, bateraezintasuna, ardura profesionala, sekretu profesionala, ordainsariak eta lan-paperak direla-eta kontu-auditoriari buruzko indarreko araudian ezarritako arau eta printzipioak.

### 3. Auditoreak aplikatu beharreko prozedurak.

Txostena emateko, auditoreak egiaztatu beharko du ea egokia den finantzaketa jaso duen erakunde onuradunak aurkeztutako justifikazio-kontua; horretarako, prozedura hauek egingo ditu:

1- Prozedura orokorrak:

1.a. Finantzaketa jasotzen duten alderdiei ezarritako betebeharrak ulertzea.

Erakundeak eta Bizkaiko Foru Aldundiak sinatutako hitzarmena aztertuko du auditoreak, bai eta finantzaketa jasotzen duen erakundeari ezarritako betebeharrak zehazten dituen dokumentazio guztia ere, berak egin beharreko berrikuspenari eragiten dion neurrian.

3- La responsabilidad de la persona auditora se circunscribe a realizar su trabajo de acuerdo con el contenido del presente documento, llevando a cabo los procedimientos establecidos en éste, pudiendo aplicar adicionalmente aquellos otros que, en base a su experiencia y conocimientos, le permitan cumplir con el fin último de toda revisión y verificación.

Como resultado de su trabajo la persona auditora emitirá un informe en el que se detallarán las comprobaciones realizadas y se comentarán todos aquellos hechos, errores o excepciones que pudieran suponer un incumplimiento por parte de la persona beneficiaria de la normativa aplicable para la correcta imputación de los correspondientes gastos e ingresos, debiendo proporcionar la información con el suficiente detalle y precisión para que la Comisión de Seguimiento pueda concluir al respecto.

4- La persona auditora deberá respetar las reglas de actuación recogidas en este documento y, subsidiariamente, lo previsto en la normativa vigente de auditoría de cuentas en materia de independencia e incompatibilidades, diligencia profesional, secreto profesional, honorarios y papeles de trabajo.

### 3. Procedimientos que la persona auditora deberá aplicar.

Para emitir el informe, la persona auditora deberá comprobar la adecuación de la cuenta justificativa presentada por la entidad receptora de financiación, mediante la realización de los siguientes procedimientos:

1- Procedimientos de carácter general:

1º. Comprensión de las obligaciones impuestas a las partes receptoras de financiación.

La persona auditora analizará el convenio suscrito entre la Entidad y la Diputación Foral de Bizkaia y cuanta documentación establezca las obligaciones impuestas a la entidad receptora de financiación en la medida en que afecten a la revisión a realizar.





2.a. Justifikazio-kontua eskatzea.

Auditoreak justifikazio-kontua eskatuko du, eta ziurtatuko du hitzarmenean ezarritako elementu guztiak jasotzen dituela. Horrez gainera, egiaztatu beharko du behar besteko ahalmena duen pertsona batek sinatu duela.

3.a. Kontu-auditoriaren auditoretza-txostena eta komunikazioa kontu-auditorearekin.

Finantzaketa jaso duen erakundearen kontu-auditoretza justifikazio-kontua berrikusteko izendatuta zegoen auditoreak barik beste auditore batek egin badu, auditoreak auditoria-txosten hori eskuratu beharko du, bere berrikuspen-lana baldintzatu lezakeen salbuespenik dagoen jakiteko. Horrez gainera, enkarguaren berri emango dio erakundearen kontu-auditoreari, eta eskatuko dio eman diezaiola eskura duen eta justifikazio-kontua berrikusteko lana baldintzatu edo mugatu lezakeen informazio guztia. Informazio hori jaso ahal izateko, erakunde horrek baimena eman behar dio aurretik kontu-auditoreari.

2- Justifikazio-kontuari dagozkion prozedura espezifikoak:

Txostenean, egindako prozedurak eta haien ondorioz lortutako emaitzak aipatu beharko dira.

Ondorio horietarako, prozedura hauek egingo dira:

2.1 Jarduketa-memoria berrikustea.

Auditoreak jarduketa-memoriaren edukia aztertu behar du, eta adi egon behar du, bere lan guztian zehar, ikusteko ea bateratasun faltarik dagoen memoria horretan jasotako informazioaren eta justifikazio ekonomikoa berrikusteko oinarri gisa erabili diren dokumentuen artean.

2.2 Memoria ekonomikoa berrikustea.

Gastuen egoera-orriaren berrikuspena honela egingo da:

2º. Solicitud de la cuenta justificativa.

La persona auditora deberá requerir la cuenta justificativa y asegurarse que contiene todos los elementos señalados en el convenio. Además deberá comprobar que ha sido suscrita por una persona con poderes suficientes para ello.

3º. Informe de auditoría de cuentas y comunicación con la persona auditora de cuentas.

Cuando la Entidad receptora de financiación haya sido objeto de auditoría de cuentas por persona auditora distinta a la nombrada para revisar la cuenta justificativa, obtendrá el informe de auditoría con objeto de conocer si existe alguna salvedad en dicho informe que pudiera condicionar su trabajo de revisión. Igualmente, comunicará el encargo al auditor de cuentas de la entidad, solicitándole cualquier información que disponga y que pudiera condicionar o limitar la labor de revisión de la cuenta justificativa. Esta solicitud de información, para que le sea facilitada, requiere de autorización previa de dicha Entidad a la persona auditora de cuentas.

2- Procedimientos específicos relativos a la cuenta justificativa:

Los procedimientos realizados así como los resultados obtenidos de la aplicación de los mismos, deberán mencionarse en el informe.

A estos efectos, se llevarán a cabo los siguientes procedimientos:

2.1 Revisión de la memoria de actuación.

La persona auditora deberá analizar el contenido de la memoria de actuación y estar atenta, a lo largo de su trabajo, ante la posible falta de concordancia entre la información contenida en esta memoria y los documentos que hayan servido de base para realizar la revisión de la justificación económica.

2.2 Revisión de la memoria económica

La revisión del estado de gastos, se realizará:





a) Erakundearen pertsonal-gastu guztiak hartuko dira kontuan.

b) Zuzeneko gainerako gastuen kasuan, lagin bat hartu behar da  $-40\%$  baino handiagoa— gastuen zerrenda sailkatutik, prozedura estatistikoak aplikatuta; konfiantza-maila  $95\%$ koa izan behar da eta gehieneko errorea,  $\pm 5\%$ .

Kasu horretan, adierazi behar da zer laginketa-sistema erabili den eta aztertutako laginak zenbat elementu eta zer zenbateko duen totalarekiko.

Alderdi hauek egiaztatuko dira:

1.a. Justifikazio-kontuan jasotzen den informazio ekonomikoa hitzartutako jarduketako gastuen zerrenda sailkatuan oinarrituta dagoela, eta, bertan, hauek identifikatu behar dira: hartzekoduna, faktura edo araudiaren arabera onartzeko modukoa den frogagiria, hari dagokion zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data.

2.a. Erakundeak badituela justifikatutako gastuak egiaztatzeko jatorrizko dokumentuak, eta dokumentu horiek kontabilitateko erregistroetan islatu direla.

3.a. Zerrendan sartuta dauden gastuek bete egiten dituztela, orokorki onartutako kontabilitate printzipioen eta arauen arabera, gastu egozgarritzat jotzeko baldintzak eta behar besteko koherentzia dagoela justifikatutako gastuen eta hitzartutako jarduketaren artean. Zentzu horretan, auditoreak eragiketen etena egingo du ekitaldiaren hasieran eta amaieran, egotzitako gastuek benetako irudia jasotzen dutela bermatzeko.

4.a. Zeharkako kostuak edo banatzeko moduko kostuak egotzen direnean, auditoreak egiaztatuko du zer banatze-sistema erabili den eta aitorten bat eskatuko du kostuen izaera, zenbateko eta banatze-irizpideei buruz; aitorten hori txostenari erantsiko zaio. Halaber ebaluatuko da ea egokiak diren egotzitako kostu horiek, eta egiaztatuko da ea haien zenbatekoa egoki banakatuta dagoen dagokien zerrenda sailkatuan.

a) Sobre la totalidad de los gastos de personal de la Entidad.

b) Para el resto de gastos directos, se seleccionará de la relación clasificada de gastos, una muestra mediante procedimientos estadísticos, que supere el  $40\%$  y cumpla con un nivel de confianza del  $95\%$  y un error máximo de más/menos  $5\%$ .

En este caso, se indicará además el sistema de muestreo empleado, el número de elementos e importe de la muestra analizada respecto del total.

Se comprobarán los siguientes extremos:

1.a. Que la información económica contenida en la cuenta justificativa está soportada por una relación clasificada de los gastos de la actividad convenida, con identificación del acreedor/a, factura o documento probatorio admisible según la normativa, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago.

2.a. Que la entidad dispone de documentos originales acreditativos de los gastos justificados, y que dichos documentos han sido reflejados en los registros contables.

3.a. Que los gastos que integran la relación cumplen los requisitos para tener la consideración de gasto imputable conforme a la aplicación de principios y normas de contabilidad generalmente aceptados, y que se produce la necesaria coherencia entre los gastos justificados y la naturaleza de las actuaciones convenidas. En este sentido, la persona auditora realizará además el oportuno corte de operaciones al inicio y al final del ejercicio, a fin de contribuir a que los gastos imputados recojan su imagen fiel.

4.a. Cuando se hayan imputado costes indirectos o repartibles la persona auditora comprobará el sistema de reparto utilizado y solicitará una declaración respecto de su naturaleza, cuantía y criterios de reparto, que se anexará al informe. Se evaluará la adecuación de esta imputación y se comprobará que su importe se encuentra desglosado adecuadamente en la relación clasificada correspondiente.





5.a. Gastuak zuzen sailkatu direla gastuen egoera-  
orriko kontzeptuetan.

6.a. Auditoreak pertsona baimendu batek egindako aitortpena eskatuko dio erakunde finantzatuari erakunde horri lotutako enpresekin azpikontratutako jarduketari buruz, eta, aitortpen horretan, adierazi behar da zer azpikontratatzailer diren eta zenbat fakturatu den. Azpikontratazioak merkatuko baldintzetan egin direla egiaztatuko du. Hala egin ezin badu, horren inguruko aitortpena egiteko eskatuko dio erakundeari.

7.a. Auditoreak pertsona baimendu batek sinatutako aitortpen bat eskatuko dio erakundeari, zeinean hitzartutako jardura finantzatu duten diru-laguntzen, sarreraren eta baliabideen zerrenda zehatza jasotzen den; zerrendan, finantziario-bide horien zenbatekoa eta iturria adierazi behar da.

8.a. Lana amaitutakoan, auditoreak gutun bat — justifikazio-kontua sinatu zuen pertsonak berak sinatua— eskatuko dio erakundeari, non adierazi behar duen auditoreak informazioa eman diola hitzartutako jarduerarekin lotutako gastuak eta sarrerak egoki egozterakoan eragina izan dezaketen inguruabarrei buruz. Horrez gainera, eginiko prozeduretarako garrantzizkoak izan eta argitasun gehiago ekartzen duten adierazpenak ere jasoko dira.

#### 4. Konfidentzialtasun-eginbearra.

Auditoreak eta bere zerbitzura dauden langileek sekretupean gorde behar dute berrikuspene egiterakoan ezagutzen duten informazio guztia, kontu-auditorien arloan indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzetan.

Edonola ere, honako pertsona edo erakunde hauek eskuratu ahal izango dute auditorearen dokumentazioa:

Jarraipenerako Batzordea osatzen duten pertsonak.

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Ogasun eta Finantza Sailaren barruan Foru Administrazioaren finantza-kontrolaren eskumena duen organoak.

5.a. Que los gastos se han clasificado correctamente en los correspondientes conceptos del estado de gastos.

6.a. La persona auditora solicitará a la Entidad financiada declaración de persona autorizada relativa a las actuaciones subcontratadas con empresas vinculadas a la misma, con indicación de los subcontratistas e importes facturados. Verificará que las mismas se han realizado en condiciones de mercado; de no poder hacerlo requerirá así mismo a la Entidad una declaración en tal sentido.

7.a. La persona auditora solicitará a la Entidad declaración firmada de persona autorizada que contenga la relación detallada de subvenciones, ingresos o recursos que hayan financiado la actividad convenida, indicando su importe y procedencia.

8.a. Al término de su trabajo la persona auditora solicitará a la Entidad una carta, firmada por la persona que suscribió la cuenta justificativa, en la que se indicará que se ha informado acerca de todas las circunstancias que puedan afectar a la correcta imputación de los gastos e ingresos vinculados a la actividad convenida. También se incluirán las manifestaciones que sean relevantes y que sirvan de evidencia adicional a la persona auditora sobre los procedimientos realizados.

#### 4. Deber de confidencialidad.

La persona auditora y el personal a su servicio estarán obligados a mantener el secreto de cuanta información conozcan en el ejercicio de su revisión, en los términos previstos en la normativa vigente en materia de auditorías de cuentas.

Tendrán acceso, en todo caso, a la documentación de la persona auditora, las siguientes personas o entidades:

Las personas que conforman la Comisión de Seguimiento.

La Diputación Foral de Bizkaia y el órgano del Departamento de Hacienda y Finanzas con competencia en el control financiero en el ámbito de la Administración Foral.





Legez baimenduta daudenek edo ebazpen judicial bidez izendatuta daudenek.

Quienes estén autorizados por Ley o resulten designados por resolución judicial.

#### 5. Egindako lana egiaztatzeko dokumentazioa.

#### 5. Documentación acreditativa del trabajo realizado.

1- Auditoreak dokumentazio-artxibo bat kudeatu behar du, berrikuspen-lana egiaztatzen duten eta emandako txostenaren oinarri diren agiriak gordetzeko.

1- La persona auditora deberá mantener un archivo de documentación acreditativo del trabajo de revisión llevado a cabo y que soporta el informe emitido por ella.

Oro har, kontu-auditoriari buruzko araudian auditorearen lan-paperak direla-eta ezarritakoaren arabera jaso eta prestatuko da dokumentazio hori. Dokumentazioak lana erraztuko du, eta bide emango du erakusteko berrikuspena dokumentu honetan ezarritakoaren arabera egin dela. Hain zuzen ere, honako hauek jasoko ditu:

Con carácter general, dicha documentación contendrá y se preparará conforme a lo previsto en la normativa de auditoría de cuentas respecto de los papeles de trabajo de la persona auditora, facilitando la realización del trabajo y permitiendo demostrar que la revisión se ha realizado conforme a lo establecido en este documento. En particular, contendrá:

Jardun-arau hauetako 3. zenbakian adierazitako dokumentazioa.

La documentación a que se hace referencia en el apartado 3 de este documento.

Auditoreak aplikatutako prozedurak.

Los procedimientos aplicados por la persona auditora.

Jasota utzi behar da auditoreak lortutako ebidentzia, eta adierazi behar da auditoreak horretarako erabilitako bide zehatza, aztertutako alderdiak eta dokumentua, erregistroa edo, oro har, auditorearen iturria identifikatzeko beharrezkoa den informazio guztia.

Constancia de la evidencia obtenida por la persona auditora, con indicación del medio concreto utilizado, los aspectos analizados y cuanta información resulte necesaria para identificar el documento, registro o, en general, la fuente de información de la persona auditora.

2- Auditoreak gutxienez ere lau urtez gorde beharko ditu eginiko lana justifikatzen duten agiriak; txostena eman duenetik hasiko da zenbatzen epe hori. Epe hori igarotzen denean bertan behera geldituko da betebeharrak.

2- La persona auditora deberá conservar la documentación justificativa del trabajo realizado durante un periodo mínimo de cuatro años a contar desde la fecha de emisión del informe. Transcurrido ese plazo decaerá esta obligación.

#### 6. Auditoreak eman beharreko txostena.

#### 6. Informe a emitir por la persona auditora.

Berrikuspena amaitu ondoren, auditoreak txosten bat emango du; txostenak honako alderdi hauek jasoko ditu:

Finalizada la revisión la persona auditora deberá emitir un informe que contendrá los extremos recogidos en los apartados siguientes:

1- Berrikuspenaren helburua.

1- Objeto de la revisión

Erreferentzia egin behar zaio erakundearen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artean sinatutako hitzarmenari, zeina dela bide betebeharra ezartzen zaion erakundeari justifikazio-kontu bat

Referencia al convenio suscrito entre la Entidad y la Diputación Foral de Bizkaia en virtud del cual se exige a aquella la presentación de una cuenta





eta harekin batera auditorearen txostena aurkezteko.

Erakundearen identifikazioa, bai eta auditorea izendatu duen organoarena ere.

Identifikatzea hitzartutako jarduera Bizkaiko Foru Aldundia edo beste alderdi bat edo alderdi batzuk direla, sinatutako hitzarmena dela bide, hitzartutako jarduera finantzatzen duten organismoak.

Bizkaiko Foru Aldundiak jarritako finantzaketaren identifikazioa, bai eta, hala badagokio, gainerako erakunde hitzartuen finantzaketarena ere.

Berrikusi beharreko justifikazio-kontuaren identifikazioa; kontu hori txostenari erantsiko zaio, eta adierazi behar da finantzaketa jasotzen duen erakundearen erantzukizuna dela kontu hori prestatzea eta aurkeztea.

## 2- Berrikuspenaren izaera eta irismena

Adieraziko da berrikuspen-lan hau ez dela kontu-auditoria bat, ez dagoela Kontuen Auditoretzari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen 2011ko uztailaren 1eko 1/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren pean, eta ez dela ematen justifikazio-kontuari buruzko auditoria-iritzirik.

Erreferentzia egin behar zaio dokumentu honetan jasotzen diren jardun-arauak arauak aplikatzeari.

Auditoreak berrikuspena egiteko erabilitako prozedurak eta prozedura horien nondik norakoak zehaztuko dira; gutxienez, dokumentu honen 3. artikuluan jasotako prozedura guztiak aplikatu behar dira.

Aurreko 3.2 atalean zehaztutakoarekin bat, beti adierazi behar da zer laginketa-sistema erabili den eta aztertutako laginak zenbat elementu eta zer zenbateko duen totalarekiko.

Edozein arrazoiengatik auditoreak ezin izango balitu osorik bete arauotan aurrez ikusitako prozedurak, aipatuko da zer prozedura izan diren eta zergatik ez diren bete.

justificativa con aportación de informe de persona auditora.

Identificación de la Entidad y del órgano que haya procedido a la designación de la persona auditora.

Identificar a la Diputación Foral de Bizkaia y/o a la parte o partes, que corresponda, como organismos que en virtud del convenio suscrito financian la actividad convenida.

Identificación de la financiación aportada por la Diputación Foral de Bizkaia y, en su caso, por el resto de entidades convenidas.

Identificación de la cuenta justificativa objeto de la revisión, que se acompañará como anexo al informe, informando de la responsabilidad de la Entidad receptora de financiación en su preparación y presentación.

## 2- Naturaleza y alcance de la revisión

Indicación de que este trabajo de revisión no tiene la naturaleza de auditoría de cuentas ni se encuentra sometido a la Ley de Auditoría de Cuentas ni a su Reglamento y que no se expresa una opinión de auditoría sobre la cuenta justificativa.

Referencia a la aplicación de las normas de actuación que se recogen en este documento.

c) Detalle de los procedimientos de revisión llevados a cabo por la persona auditora y el alcance de los mismos, debiendo aplicarse al menos todos los previstos en el apartado 3 de este documento.

Señalar en todo caso, conforme a lo establecido en el apartado 3.2 anterior, el sistema de muestreo empleado, el número de elementos e importe de la muestra analizados respecto del total.

Si por cualquier causa la persona auditora no hubiera podido realizar en su totalidad los procedimientos previstos en estas normas, se mencionarán los procedimientos omitidos con indicación de su causa.





Adieraziko da erakundeak berrikuspen-lana egiteko eskatutako informazio guztia eman diola erakundeak auditoreari. Erakundeak eskatutako informazio guztia eman ez badio, egoera horren berri emango da, eta eman ez den informazioa adieraziko da.

### 3- Egindako berrikuspenaren emaitza.

Adostutako pertsonak hitzarmenaren arabera dituen baldintzak eta konpromisoak ez betetzea ekar dezaketen egitateak aipatuko dira.

Justifikazio-kontuaren gastu eta sarreraren egoera orrian ondorio ekonomikoa izan dezaketen gorabeherak identifikatu eta kuantifikatuko dira, eta, hala badagokio, gastu eta sarrera egozgarrien kopuru zehatza zehaztuko da.

Informazioa behar besteko zehaztasunaz eman behar da, organo kudeatzaileak erabakia hartu ahal izateko.

### 4- Data eta sinadura

Txostena haren egile edo egileek sinatu behar dute, eta txostena ematen den lekua eta eguna adierazi behar dira.

Mención a que la Entidad receptora de financiación ha facilitado cuanta información le ha sido solicitada por la persona auditora para realizar el trabajo de revisión. En caso de que la Entidad no facilitara la totalidad de la información solicitada, se mencionará tal circunstancia con indicación de la información omitida.

### 3- Resultado de la revisión realizada

Se mencionarán los hechos observados que pudieran suponer un incumplimiento por parte de la persona convenida de las condiciones y compromisos asumidos en virtud del convenio.

Se identificarán y cuantificarán las incidencias que pudieran manifestarse con repercusión económica en el estado de gastos e ingresos de la cuenta justificativa ofreciéndose, en su caso, una cifra ajustada de los gastos e ingresos imputables.

Toda la información deberá ser proporcionada con el suficiente detalle y precisión para que el órgano gestor pueda concluir al respecto.

### 4- Fecha y firma

El informe deberá ser firmado por quien o quienes lo hubieran realizado, con indicación del lugar y fecha de emisión.





3. ERANSKINA:

GASTUEN ETA DIRU-SARREREN  
AURREKONTUA

ANEXO 3:

PRESUPUESTO DE GASTOS E INGRESOS

ERAKUNDEA / ENTIDAD:  
ASOCIACIÓN EDUCATIVA BERRIZTU

PROIEKTUA / PROYECTO:  
KEMENA

URTEA / AÑO:  
2026

<b>A) Gastuen aurrekontua:</b>	<b>A) Presupuesto de Gastos:</b>	
Aurrekontuaren banaketa:	Desglose presupuesto:	
Laguntza kontzeptuko gastuak	Gastos en concepto de ayudas	
Hornidurak	Aprovisionamientos	102.100 €
Langileen gastuak	Gastos de personal	894.785 €
Beste gastu batzuk	Otros gastos	158.204 €
Amortizazioak	Amortizaciones	6.015 €
<b>Gastua, guztira</b>	<b>Total gasto</b>	<b>1.161.104 €</b>
<b>Aurrekontuaren kopuru guztia</b>	<b>Importe total presupuesto gastos</b>	<b>1.161.104 €</b>
<b>B) Diru-sarreraren aurrekontua</b>	<b>B) Presupuesto Ingresos:</b>	
Bizkaiko Foru Aldundiaren ekarpena	Aportación Diputación Foral de Bizkaia	1.152.704 €
Erabiltzaileen ekarpena	Aportación personas usuarias	8.400 €
<b>Diru-sarreraren aurrekontuaren zenbatekoa, guztira</b>	<b>Importe total presupuesto de ingresos</b>	<b>1.161.104</b>
Hitzarmenaren hilabete kopurua	Nº meses Convenio	12 meses/hilabete





#### 4. ERANSKINA:

#### ANEXO 4:

##### DATU PERTSONALEN BABESA

##### “PROTECCIÓN DE DATOS PERSONALES”

Europako Parlamentuaren eta Europako Batzordearen 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Araudiaren (EB) artikulua, datu pertsonalen tratamendua eta datu horien zirkulazio askea dela eta, pertsona fisikoen babesari buruzkoak (aurrerantzean, DBAO) eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren artikulua, Datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoak (aurrerantzean, DPBEBLO) diotenarekin bat etorritu.

De conformidad con el artículo 28 del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos (en adelante, RGPD) y el artículo 33 de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de datos personales y garantía de los derechos digitales (en adelante LOPDGDD).

Datu pertsonalen tratamendua dakarren honako Hitzarmen honen indarra daukan datatik aurrera:

Desde la fecha de efectos del presente Convenio, que implica el tratamiento de datos personales:

- Asociación Educativa Berriztu elkarteak datuen tratamenduaren eragilea izango da eta datu pertsonaletan sartu ahalko da edo kudeatu ahalko ditu.
- BFAko Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiaren partez (aurrerantzean, Zuzendaritza eskumenduna), eta pertsona hori datuen tratamenduaren arduraduna izango da.

- Asociación Educativa Berriztu, tendrá la consideración de persona encargada del tratamiento, pudiendo acceder y/o tratar datos personales.
- la Dirección General de Inclusión Social de la Diputación Foral de Bizkaia (en adelante Dirección competente), será la persona responsable del tratamiento de datos.

Araudiak ezarritakoari jarraiki, datu horietan sartzea ez da datuen komunikaziotzat joko; hortaz, Asociación Educativa Berriztu elkarteak sinatzen edo egiten deneko pertsona fisikoa tratamenduaren eragilea izango da eta Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak emandako manuei men egin beharko die, ondoko neurriak betetzeari kalterik egin barik:

En base a lo dispuesto en la normativa, el acceso a esos datos no se considerará comunicación de datos, y Asociación Educativa Berriztu será la encargada de tratamiento y deberá atenerse a las instrucciones emanadas de la Dirección General de Inclusión Social, sin perjuicio del cumplimiento de las siguientes medidas:

##### Datu pertsonalen tratamendua:

##### Tratamiento de datos personales:

Zuzendaritza eskumendunak datuen tratamenduaren arduraduna/erantzunkidea izateari dagozkion pertsonaren ardurak eta zereginak dauzka eta Asociación Educativa Berriztu elkarteak datuen tratamenduaren pertsona eragileari dagozkion ardurak eta zereginak dauzka.

La Dirección competente tiene las responsabilidades y obligaciones derivadas de ser persona responsable/corresponsable del Tratamiento y Asociación Educativa Berriztu tiene las responsabilidades y obligaciones derivadas de ser persona encargada del Tratamiento.

Datuen tratamenduaren arduradunak ondoko eginkizunak bete behar ditu:

Corresponde a la persona responsable del tratamiento:





a) "Datu pertsonalen tratamendua" deritzon eranskinean jasotzen diren datu pertsonalen tratamenduari lotutako jarduerak baimentzea.

b) Datuen babesari buruzko araudia betetzen dela aurretiaz zaindu, tratamenduak dirauen artean kontrolatu eta tratamenduaren ostean ikuskatzea.

c) Araudiari jarraiki, datuak tratatzeko eragiketa egokietan, datu pertsonalak babesteko ikuskapenak, ikuskaritzak eta eragin-ebaluazioak egitea.

d) Aurretiazko kontsulta egokiak egitea.

"Datu pertsonalen tratamendua" izeneko eranskina berariazko jarraibideen agiria da eta, bertan, babestu beharreko datuak jasotzen dira, bai eta egin beharreko datuen tratamendua eta horren helburua ere. Gainera, Asociación Educativa Berriztu elkarteak hartu beharreko neurriak ere ageri dira. Pertsona horrek "Datu pertsonalen tratamendua" izeneko eranskinean jasotzen ez den helbururen batekin erabiliko balitu datuak, hitzarmenean ezarritakoak eta indarrean dagoen legeriak xedatutakoak urrututa komunikatu edo erabiliko lituzke datuak eta, horregatik, datuen tratamenduaren arduradunatzat hartuko da eta egindako arau-hausteen ziozko erantzukizuna hartu beharko du.

Hitzarmena gauzatutakoan, betearazten den bitartean "Datu pertsonalen tratamendua" izeneko eranskinean ezarritakoa aldatu edo egokitu beharko balitz, Asociación Educativa Berriztu elkarteak adierazi beharko du zer aldatu edo egokitu behar den. Zuzendaritza eskumendunak eskatutakoarekin egonez gero, "Datu pertsonalen tratamendua" izeneko eranskin eguneratua emango du, tratamenduaren nondik norakoak zehazki jasota.

Datuen tratamenduaren pertsona eragileak bete beharrekoak

DBAOren 28. artikulua dioenari jarraiki, Asociación Educativa Berriztu elkarteak behean ageri diren betebeharrak beteko dituela bermatu behar du. Betebehar horiek "Datu pertsonalen

a) Autorizar las actividades de tratamiento de datos personales que se especifiquen en el anexo "Tratamiento de datos personales".

b) Velar de forma previa, controlar durante el tratamiento y supervisar a posteriori el cumplimiento de la normativa en materia de protección de datos.

c) Realizar las inspecciones, auditorías y evaluaciones de impacto en la protección de datos personales de las operaciones de tratamiento que correspondan de acuerdo a la normativa.

d) Realizar las consultas previas que correspondan.

El Anexo "Tratamiento de datos personales" es el escrito de instrucciones ad hoc que especifica y detalla los datos personales a proteger, así como el tratamiento de datos a realizar y su finalidad y además, las medidas a implementar por la Asociación Educativa Berriztu. Si dicha persona destinase los datos a otra finalidad diferente y no recogida en el Anexo "Tratamiento de datos personales", los comunicara o los utilizara incumpliendo las estipulaciones del convenio y la normativa vigente, será considerada también como persona Responsable del Tratamiento, respondiendo de las infracciones en que hubiera incurrido.

Si una vez formalizado el convenio y durante la ejecución del mismo resultara necesario modificar o adaptar lo estipulado en el Anexo "Tratamiento de datos personales", la Asociación Educativa Berriztu señalará los cambios que solicita modificar u adaptar. En caso de que la Dirección competente estuviese de acuerdo con lo solicitado emitirá un Anexo "Tratamiento de datos personales" actualizado, de modo que el mismo siempre recoja fielmente el detalle del tratamiento.

Estipulaciones como persona Encargada de Tratamiento

De acuerdo con el artículo 28 del RGPD, la Asociación Educativa Berriztu se obliga a y garantiza el cumplimiento de las siguientes





tratamendua” izeneko eranskinean jasotakoa osatzen dute:

